

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostia Kirolak udako denboraldiari hasiera emango dio kanpoko igerilekuak abian jarritz

500.000 erabilera baino gehiago bermatu zituen joan den udan Udalaren kirol sareak

Datorren astelehenean, ekainaren 15ean, udako denboraldiari hasiera emango zaio Udalaren kirol instalazioetan, Altza, Etxadi eta Intxaurrendoko kanpoko igerilekuen irekierarekin, baita solariumeko eremuarena eta Paco Yoldi Igerilekuak Kiroldegiko ur jokoena ere. Egun horretan bertan sartuko dira indarrean udako ordutegiak Donostia Kirolaren sare osoan.

Igerilekua duten kirol-instalazioak egunero egongo dira zabalik udan, igandeak eta jaiegunak barne. Altza, Paco Yoldi, Etxadi eta Intxaurrendoko kiroldegiek ordutegi zabalak izango dituzte asteburu eta jaiegunetan, 9:00etatik 20:30era irekita. Bestalde, kanpoko igerilekuak eta Paco Yoldiren ur-jolasak egunero erabili ahal izango dira, 10:00etatik 20:00etara.

Gainera, asteleheneetik ostiralera, urteko ohiko ordutegiak mantenduko dira. Ildo horretan, Paco Yoldi kiroldegia 6:30etik aurrera irekiko du, eta Altzak 7:00etatik aurrera. Neurri hori aurten sartu da, goizeko lehen ordutik kirola egitea errazteko. Era berean, Egia kiroldegia ordu erdi aurrerratu du bere irekiera, aurreko udekin alderatuta, eta 8:30ean irekiko ditu ateak.

Iñaki Gabarain Kiroletako zinegotziak nabarmendu duenez, “kanpoko igerilekuen irekierak milaka donostiarrentzat urteko denboraldi desiratuenetako baten hasiera markatzen du. Udako hilabeteetan, gune horiek topaleku, aisialdi eta jarduera fisikorako leku bihurtzen dira, aire zabalean, adin guztietako pertsonentzat”.

Gabarainek gaineratu duenez, “herritarrek kalitatezko kirol-instalazioez gozatu ahal izatea nahi dugu uda osoan, hiriko hainbat auzotan banatuta dauden igerileku, egoteko gune eta ur-jokoen eskaintza zabalarekin, etxetik gertu aisialdi osasungarriko aukerak erraztuz”.

2025eko udan 500.000 erabilera baino gehiago zenbatu ziren hiriko kirol-zentroetan; hau da, egunero, batez beste, 5.800 erabiltzaile.

“Iazko udan, milioi erdi erabilera baino gehiago erregistratu genituen gure kirol-instalazioetan, eta zifra horrek erakusten du udal-ekipamendu horiek herritarrentzat duten garrantzia. Gure konpromisoa da espazio irisgarriak, seguruak eta erakargarriak eskaintzen jarraitzea, ohitura osasungarriak

Prensa oharra

Nota de prensa



sustatzeko eta hiriko auzo guztietan kirolaz eta aisialdiaz gozatzeko”, adierazi du zinegotziak.

Donostia Kirolak gogorarazten du, Kirol Txartelaren urteko abonuek gain, hilabeteko bonuak ere badirela, erosi eta 30 egun naturaleko iraupenekoak. Modalitate hau bereziki interesgarria izan daiteke udako hilabeteetan kirol instalazioak erabiltzea aurreikusten dutenentzat.

Hileko abonuek Kirol Txartelaren gainerako modalitateen abantaila berberak eskaintzen ditu, udal igerileku eta gimnasio guztietarako sarbidea barne, eta Aukeran programaren bidez antolatutako kirol jardueretan parte hartzeko aukera.